

XXII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Zeru-lurren Jaungoikoa, Zugandik dator on guztia;
sartu gure bihotzetan zure izenaren maitasuna;
lotu gaitzazu gero eta estuago Zeurekin,
gure baitan biziara dezazun ona den guztia
eta biziara duzuna arreta handiz zaindu.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Sir 3, 19-21. 30-31

*Izan zaitez apal,
eta Jainkoaren ederra aurkituko duzu.*

Siraken liburutik

Ene seme, izan zaitez apal zure egintzetan,
eta gizon eskuzabala baino maiteago
izango zaituzte.
Izan zaitez, zenbat eta handiago,
hainbat eta apalago,
eta Jainkoaren ederra aurkituko duzu;
handia da eta Jaunaren errukia,
eta apalei agertzen dizkie bere ezkutuak.
Harroaren gaitzak ezin daitezke senda,
gaitzakeriak zainak eginak baitauzka harengan.
Zentzudunak zentzudunen hitzak maite ditu;
jakinduriari erne dagokion belarriak poz izango du.

ERANTZUN SALMOA: Sal 67, 4-5ac. 6-7ab. 10-11

**R/. Zuk, ene Jainko, zeure ontasunean
eratu duzu gizagaixoentzat etxea.**

Zintzoak pozten dira,
Jainkoaren aurrean alaitzen:
pozetan dira asetzen.
Kanta Jainkoari, egin goratzarre Haren izenari,
izena Jauna du, Haren aurrean poztu zaitezte. R/.

Umezurtzen aita da, alargunak ditu babesten,
bere egoitza santuan da egoten.
Jainkoak aterpe ematen die baztertuei,
loturik eramanak pozetan ditu askatzen. R/.

Bidali zenuen, ene Jainko, euri ugaria,
Zuk indartu zenuen zeure ondare eroria.
Han kokatu zen zure artaldea,

Zuk, ene Jainko, zeure ontasunean
gizagaixoentzat eratutako lurrean. R/.

II. IRAKURGAIA: Heb 12, 18-19. 22-24a

*Sionmendir hurbildu zarete,
Jaungoiko biziaren herrira.*

Hebertarrei egindako epistolatik

Senideok: Zuek ez zarete, uki daitekeen mendi batera iritsi: su bizi, hodei, ilunbe, ekaitz, turutots, eta hitz orroetara; horrelakoak entzun zituztenek, berei gehiago hitzik ez egiteko eskatzen zuten. Zuek Sionmendir hurbildu zarete, Jaungoiko biziaren herrira, zeruko Jerusalem, milaka eta milaka aingeruren batzarrera, zeruetan idatzirik dauden lehen semeen bilgurara, guztien epaile den Jaungoikoarengana, beren helburura iritsitako zintzoen espirituetara, elkargo berri baten bitarteko den Jesusengana.

EBANJELIOA: Lk 14, 1. 7-14

Aleluia: Mt 11, 29ab

R/. Aleluia.

V/. Hartazue nire uztarria —dio Jaunak—,
eta ikasi Niregandik; biozbera naiz eta apala. R/.

*Bere burua goratzen duena, beheratua izango da;
eta bere burua beheratzen duena, goratua.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, larunbat batez, Jesus farisear handiki baten etxean sartu zen bazkaltzera. Haiek zelatan zegozkion. Jesusek, jatera deitutakoek aurreneko aulkiak aukeratzen zituztela oharturik, parabola hau esan zien:

«Ezteietara deitzen zaituztenean, ez zaitez jarri aurreneko lekuan; baliteke eta zu baino gehiago denen bat hark deitua izatea; etorriko da, zu eta hura deitu zaituztena, eta esango dizu: "Utziozu zeure lekua honi". Orduan azken lekura joan beharko duzu lotsaturik. Baizik eta ezteietara deitzen zaituztenean, zoaz eta jar zaitez azkeneko lekuan; deitu zaituenak, datorrenean, esan diezazun: "Adiskide, igo zaitez gorago!" Orduan oso ondo geldituko zara mahaikide guztien aurrean.

Izan ere, bere burua goratzen duena, beheratua izango da; eta bere burua beheratzen duena, goratua».

Eta bazkaltzera deitu zuenari esan zion: «Bazkari edota afari bat ematean, ez deitu, ez adiskide, ez senide, ez ahaide, ez auzoko aberatsik; haiek ere deituko baitzaituzte eta horrela ordainduko. Otordu bat ematean, deitu behartsuak, elbarriak, herrenak etaitsuak; eta zorionekoa izango zara, ordainik ezin emango baitizute; ordaina, zintzoen berpiztean emango zaizu».

Oparigaien gainekoa

Eskaintza santu honek, Jauna,
ekar diezagula beti zure salbamenaren dohaina,
sakramentuetan ospatzen duguna

zure indarrak bete dezan.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengo

Mahai santuko ogia harturik, Jauna, otoitz egiten dizugu:
maitasunaren janari honek bizkor ditzala gure bihotzak
eta eraman gaitzala Zu gure senideetan zerbitzatzera.
Jesu Kristo.